

Artzain Garazin 1950tik hara

B.: berroitamarrian jin nintzan unat, ta geoztik beti emen niz ni, berroitamarretik, ordian oai gira bi mila zortzian, heldu da, berroita amarra... iutanoita amarra, laatanota amarra, urte... ba heldu da, hamar, aantxu berroi urte emen nizala.

E.: geio re ba. Berroitamar.

B.: eo berroita amar.

E.: berroita zorzi.

B.: ba ba, berroita... Berroita emezorzi justu ba, bai bai, berroita emezortzi ba.

E.: Luzaidetik jin zira gero Uarte-Garazirat, beti artzain beste nausi batendako, berriz amoost urte egon zira hor, bana zinez kanbio zena lanian artzeko manera, edo lanen... edo berdina zen zuretzat, berdintsia.

B.: a berdintsu, ardiekin ibiltzia berdintsia. Geo mendiak an obiak zien, ardiendako, biziki obiak ba mendiak, ta ikaraarriko kanpoak an bazien animaleko kanpoak kurrutzen zutzen an ardiek, ni una jin nintzalaik emen eon... eon nintzan emen una jin ta, bana emen nun bear dia ardiak, kusi bainin ze parcours zuten ta bana emen nun bear dia ardiak bizi bestenez, geioko kanpoik gabe ta ta. Ta ardiak untsa, iziari untsa joan zien, hits zien puxkat eta berroita amar idor joan baitzin, ta mehe zien biziki ardiak emen, ta ardi... ardi antzu anitz atea zen, eta nausi zenain arditan, anitz ardi antzu, erdiak bano geio atea zien antzu, eun ta... eun ta bat buru zien, laatanota hemezorzi ardi ta hiru marro, eun ta bat, ta laatanota amaz... laatanota hamazazpi arditan atea zien e... berroi, e... zade, hoita sei, berroita ameka ardi antzu atea zien.

E.: nolaz ori?

B.: zazi, eta idorte re zen ta ez dait nik bate ze ta, ez dakit, ez dakit, ta geo antzu zien ek, kendu ondoko negian, buxeriako, eta heen lekian zarri ardi erna, ardi gazte ernariak, ta bein in goo zitin, erran... Igande batez, mezik landa, beti meza nagusira joaiten baitzen nausi zena ta, hantik jin ta, in zan geo igande batez ta, ba ta ola eta, ardi antzuendako, zeait solas in ziila lasar noaitekin ta, ez zin yeus e inik, bana ola zeit aipatu ta, ordian in nakon, “ba bana orik arrasatiak dira orik”, arrasatiak erran nai du, hortzetan ez zuten markatzen geio, oai lau urtetaik hat, sei ortzetaik hat, ez zuten markatzen hortzetan, ta hek arrasatiak zien, bost urteko ta ola zien ardi ek, bost-sei urte edo ta, na hortaz geoz, antzu gertatzen badira, ba, ba, geo, heldu den urtean arkalduko dira bana geo main dute intresa, bana eskutik joaiten dira geo, bein arrasatuz geoz, bear du ardiak kendu, antzu, antzu gertatzen delaik, ondoko urtian geo, leenbiziko urtean main dute intresa, bana geo antik ondoko urteko hausten dira azkarki ardiak

eta, obe litake orik kentzia ta orien lekian ardi gazte ernari zonbait zartzen aal balitz, joño gizona, gustatu zitzakon ori, ta baietz, “arrazoin duk” eta, “aurrian arima, arrazoin duk, arrazoin duk” eta “bate ez duk ide gaxtoa ori” ta “bate ez duk” eta iaazi zuten... Bazen Lasan bazkak artiak, eta pentze at, pagoxa alor bat, ta hementik joan ta han ilaite baten eina bezala pastu zuten an, ta barnetik idorra maiten neen, ta hantik ilaite aten burian bazela, erran zaan eta etxea kartzeko ardiak, eta han, eta Lasakaldian biltzen gintin ordian, ez baitzen ardi meta andia, petnsa zazu, ee iutanoita... hiutanoita hamar buru zien, marro bat il zen, iutanoita amar buru zien araiz gelditu, ta, beti etxeat, ardiak ereman, iakoitz batez erran zaan, iakoitza edo ez dait bate, beti erran zaan: “ats... atseko kartzik, etxat bilzkik”, ta bon, bon, karriko nitila ba, ta etxea eman ta biamonian, askal eta in zaan eta, “ea bilxkik eta ardi antzu oriek or zonbat dien” ta, banakin ba zoin zien ta, oita sei ardi antzu beexi nik, buria itzul arte bainakin zoin zien ta, “bon, beexi tut”, ta beexi ta, ardiak miatu zitin ta, “aurrian arima, na ardi ok iazi die, iziarri iazi die ardi ok, bana biziki iazi die, ale ez nian uste nik honbeste iazten al zutela ardi ok, hik erran dukana in bear diau astelenian, multso bat eman Donianeat”, ta zazpi-zortzi eman gintin, Donianeat, ta ordian plaza bixkarrian iten zen artzar merkatia, ta seidan saldu, ara, arribatu orduko, emen Garat zaar zena, ez Albert zautu uzu, zaarra re ba seurro, ez dait nola zin izena arek, eta Albert zenain maztiain aita, bi zangoak moztuik ura re, ala il zen ua re, gizon ua, ta artzen zen ua, hola artzar erosten ta ola, ta hari saldu, arriatu orduko, plaza bixkarrean, ta erran zakon: “bauxia geio otaik etxen” ta “a deurrian arima batxit ono” ta “kartzitxu ondoko astelenian” ta ondoko astelenian eman ta are saldu, ta een lekian zarri geo, ardi ernariak ta ara, etaik geo ta, iziarri untsa joan zien ondoko udan, biziki untsa. Baarrik emen goizo erditzen zien ardiak, eguerri aitzinian jausten zen emen beiti, bai on... Urte atez bano geio re ba, eguerri... Eguerri bezperan e jautsi izan niz ementik, eguerri bezpera atseko, baizu gau erdiko meza izaiten baita, ta ba ni ementik etxea joan atsaldia, alo atsaldia edo eguerdi aireko edo, atsaldia ardura eldu orduko, ta hara ardiak barnea bildu ta, gau erdiko mezaat, bein bano geio gertatu zait ori.

E.: alhabidia bazinien beaz.

B.: emen, ba, ba, ba. Hementik, olaxe, bide au petik eta gainetik, ta or baita lepo at, eta Landarteko lepoa, or baizu? Ansolain etxola, hara eldu gabe bada lepo at hatola, haraano ola, haraano ortik junta, ta oai re ala-ala ute, oaikoek e.

E.: nola mugatzen zinien zure alabidia?

B.: nola seitzen? Ardiek usaia artia zuten ta ardiek berek, nik banakin niaur emen ez ukanik e, ardiak been lekian egoin zien, nik banakin nun arrapatuko nitin ardiak, ta oriek berak itzuliko zien bear zen lekutik, usaia ala zuten ta oai re ala-ala ute, oaiko orik, oai or, Eialaartarrak baitira, ene ardien parte at ak erosi zin, ta halapideik geo, frangotan ez zen ori jiten ta...

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen kariatara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala